

III. ERANSKINA: III.3. fitxa: Aldez aurreko ezagupenak

	E	G
Energiari dagokionez, txigorgailu itxiek irekiek baino ia %50 gutxiago kontsumitzen ahal dute.		
Gainaldeko maletategiak ibilgailuaren erregai kontsumoa %15 igotzen ahal du.		
Zain gauden bitartean, motorra piztuta uzteak energia asko xahutzeaz gainera, ez du onurarik ekartzen.		
100 watteko bonbilla bat ordezkatu, eta horren ordez kontsumo txikiko beste bat jarriz gero, urtean CO2 tona erdi bat gutxiago igorriko dugu atmosferara.		
Energia aurrezteko, hobereena da lisakina erabiltzea jantzi bakarra besterik ez baduzu lisatu behar.		
Erabiltzen ari garen bitartean labearen atea irekita uztea etxetresna elektrikoa ongi erabiltzeko ohitura ona da		
Presio-eltzearekin sukaldeko ohiko moduan baino energia gutxiago kontsumitzen da (%15 gutxiago)		
Bazkariak prestatzen dugun bitartean, eltzeak eta lapikoak estaliz gero, energiaren %20 aurreztuko dugu		
Hotza delarik, motorra azeleratzeak erregai asko aurrezten du		
Ongi puztuta izaten baditugu, gurpilak gehiago iraun, eta erregaia aurreztuko dugu		
Hozkailua eta izozkailua benetan behar duguna baino 5° hotzago egonez gero, energiaren kontsumoa %25 igoko da.		
Garbitzeko erabiltzen den argindarraren ia %90 ura hozteko erabiltzen da		
Beruna duen gasolina ez da arriskutsua		
Autoek kilo erdi bat CO2 igortzen dute gasolina litro bakoitzeko		
Motorra ongi doitua mantentzea modurik errazena da erregai kontsumo eraginkorra lortzeko.		
Etxeko berogailuak ez dio ingurumenari kalterik egiten		
Etxean kontsumitzen dugun energiaren erdiak ihes egiten du leiho, zirrikitu eta beste bide batzuetatik, neguan bero eran, eta, udan, aldiz, aire hotz eran.		

III. ERANSKINA: III.3. fitxa: Emaitzak

	E	G
Modelo irekiek baino gehiago aurrezten dute.	x	
Autoaren erregai kontsumoa %35eraino igotzen dute. Behar ez baduzu, kendu.		x
Erregai kontsumitu eta airea kutsatu baizik ez duzu eginen.	x	
Espanian 250 milioi bonbilla erabiltzen ari dira. Bonbillen %40 aldatu, eta kontsumo txikiko beste batzuk jarriko balira, urte batez zentral nuklear batek sortzen ahal duen argindarraren kopuru bera aurreztuko litzateke.	x	
Egokiena da jantzi asko garbitzeko erabiltzea.		x
Beroak ihes egiten du. Irekitzen den bakoitzean, barneko beroaren %20 galtzen da.		x
Energia gutxiago kontsumitu ez ezik, erdia aurrezten da, ohiko moduaren aldean.		x
Eta gehiago aurreztuko dugu oraindik, ontziaren hondoa sua baino zabalagoa bada.	x	
Egokiena da emeki ibiltzea, motorrak funtzionatzeko behar duen temperatura izan arte.		x
Gurpila behar bezala puztu ezean, ia gasolinaren %5 xahutuko dugu, errodadurarako gunearen erresistentzia igoko baita. Neurri hau hartuta, zenbat erregai aurrezten ahal dugu?	x	
Temperatura egokiena 3° eta 5° bitartekoa da. Atearen juntura garbia mantentzeaz gainera, hermetikoki ixtea eta funtzionamendu eraginkorragoa lortuko dugu.	x	
Urak berotzeak sortzen du gastu hori. Ur epelez garbitzea eta ur hotzez urberritzea irtenbide ona da.		x
Ihes hodiak igortzen dituen gasen berunak gizakiaren gibela, garun, eta giltzurrunei kalte egiten die. X		x
Autoek igortzen dute basoak hil eta birikei kalte egiten dieten hidrokarburoen %27.	x	
Mantentze kaskarra duten autoen 100.000 jabek soilik beren ibilgailuen funtzionamendua berrikusiko balute, urtean 40 milioi kilo CO2 gutxiago -gutxi gorabehera- igorriko lirateke atmosferara.	x	
Etxeko berogailuak igortzen du sufre dioxidoaren eta nitrogeno-oxidoen %12 inguru (euri azidoa sortzen duten substantziak dira).		x
Isurketaren lekuak argizari baten bidez aurkitzen ahal dira. Garrak argi erakusten ditu aire korranteak eta bero ihesak. Irtenbidea izan liteke leihoetan burleteak jartzea.	x	